

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Arte Eszenikoen Nafarroako Zirkuituak, bigarren edizioan, 47 ikuskizun programatu ditu 30 herritan

*Programa honetan, dantza, antzerki, multimedia eta zirkoko 14 konpainiaren lana hedatzen da*

Ostirala, 2019.eko otsailak 1

Arte Eszenikoen Nafarroako Zirkuituaren bigarren edizioan guztira 47 ikuskizun programatu dira otsaila eta urria artean egiteko, Nafarroako 30 herritan. Emanaldiak RTN-NASEko (Red de Teatros de Navarra-Nafarroako Antzoki Sarea) bazkideak diren espazio eszeniko ezberdinetan burutuko dira. Erakundea proiektua kudeatzeaz eta sustatzeaz arduratzen da, eta Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuaren diru-laguntza jasotzen du; hots, 125.000 euro, 193.801 euroko aurrekontutik.

Zirkuitua Tuteran aurkeztu dute gaur, eta bertan izan dira Kulturako zuzendari nagusia, Dori Lopez Jurio; RTN-NASEko lehendakaria, Zutoia Toral; Tuterako Kulturako zinegotzia, Javier Gómez Vidal; eta programaren kudeatzailea, Iker Bengotxea.

Arte Eszenikoen Nafarroako Zirkuitua Antzerkia Bultzatzeko Planean kokatzen da, eta horren helburua da sarekoak diren espazioen ohiko programazioa aberastea, proposamen garaikideekin eta sormen-arrisku handiagoa dutenekin eta, bereziki, arte eszeniko minoritarioenak (adibidez, dantza) kontratatzea bultzatzea. Ildo horretan, nabarmendu behar da programaturiko emanaldien %50 inguru era horretako ikuskizunak direla. Horrez gain, %34 antzerkikoak izango dira eta gainerako %17a multimedia eta zirkokoak.

### Programazioa

Tuteran inauguratuko da programa datorren otsailaren 2an, “La Teta de Janet” obrarekin, Ertza (Gipuzkoa) dantza-taldeak eskainita. Ikuskizun horretan, hizkuntza berriak, dantzari gazteak eta Jhana Beaten zuzeneko musika izango dira, publiko gazteena konektatzen duten elementu freskoak eta indartsuak sartzeko dinamikari jarraituaz.

Konpainien jatorriari dagokionean, Zirkuituaren programazioaren erdia baino gehiago Nafarroako Antzerki eta Dantza taldeen ikuskizunek osatzen dute: *Producciones Maestras, Fueradeleje, In Extremis, La Caja, Arantxa Villanueva Cía de Danza, Quiero Teatro eta Yarleku Teatro*.

Emanaldi gehieneko ikuskizunak (bakoitzak 9) hauek izango dira: batetik, “Loco desatino”, *Producciones maestras* taldearena, eta Zangoza, Noain, Mutiloa, Azagra, Tafalla, Altsasu, Agoitz, Cintruénigo eta

Ribaforada herrietan emango da; eta, bestetik, “¿Quién teme al lobo feroz?”, Nafarroako *Fueradeleje* dantza-taldearena, eta Lizarra, Valtierra, Mutiloa, Los Arcos, San Adrián, Lesaka, Viana, Lodosa eta Castejon herrietan eskainiko da.

Bestalde, Foru Komunitatetik kanpoko talde hauek izango ditugu: “Euria”, *Markeliñerena* (Bizkaia), Feten 2017 Saria ikuskizun onenarentzat eta haurren ikuskizun onenerako hautagaia 2018ko Max Sariatik; “Mulier”, *Maduixa* (Valentzia) Dantza-konpainiarena, 2017ko Max Saria eta Umore Azoka 2017 Saria; eta “Emporats”, *La Trócola (Alacant)* konpainiarena, Feten 2018 Saria gaueko ikuskizun onenarentzat. Azken lan horretan zuzenean interpretatutako musikak Nafarroako Jo & Swissknife taldearen izen soziala du.

Zirkuituari buruzko programazio osoa Nafarroako Antzoki Sarearen [web](#) orrialdean kontsulta daiteke.